



## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

@@@EBAZPENA, 2010eko maiatzaren 10ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena, EAEko ikastetxe publikoetan merezimendu-lehiaketa bidez 2010-11 ikasturtetik 2013-2014 ikasturtera arte zuzendari aritzeko aukeratuak izan diren zuzendariei dei egiten diena Hasierako Prestakuntza Programa egin dezaten.@@@

Otsailaren 3ko 22/2009 Dekretuaren (2009ko otsailaren 18ko EHAAn argitaratuaren)14. artikuluan xedatu da zuzendari izateko aukeratu diren pertsonen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak antolatutako Hasierako Prestakuntza Programa gainditu behar dutela. Dekretu hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mende diren Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako zuzendariak aukeratzeari, izendatzeari, eta ikastetxe horietako pertsona bakarreko beste gobernu-organoek kargua uzteari buruzkoa da.

2009ko azaroaren 27ko Aginduaren (2009ko abenduaren 28ko EHAA) 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, zuzendari karguan gutxienez bi urtez aritu direla egiaztatzen dutenek ez dute Hasierako Prestakuntza Programa egin beharrik. Nolanahi ere, pertsona horiek, hala nahi izanez gero, Prestakuntza Programa egin dezakete salbuetsirik ez dauden lagunekin batera. Horretarako, Hezkuntza Berrikuntzako zuzendariari ikastaroan onar ditzan eskatu beharko diote.

Beraz, Hasierako Prestakuntza Programa horren antolamendua eta garapena arautzeko asmoz, arestian aipatutako arauetan xedatutakoaren arabera, eta Hezkuntza Berrikuntzako Zuzendaritza honen eskumenak betez

EBATZI DUT

*Lehenengoa.-* Hasierako Prestakuntza Programa

1.1.- Hasierako Prestakuntza Programa ekainaren 7a eta 24a bitartean egingo da, I. eranskinean jasotako edukiak emango direlarik.



1.2.- EAEko ikastetxe publikoetako zuzendari izateko aukeratako pertsonetatik zuzendari moduan gutxienez bi urte osoz aritu ez diren guztiek derrigorrez egin eta gaingitu behar dute Hasierako Prestakuntza Programa.

1.3.- Hautatutako pertsonetatik ikastetxe publikoetan bi urte oso baino gehiagoz zuzendari moduan aritu direnek ez dute Hasierako Prestakuntza Programa egin beharrik. Edonola ere, pertsona horiek programan parte hartu nahi badute, maiatzaren 27a baino lehen eskatu beharko diote Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariari programan onar ditzan. Ekainaren 5a baino lehen argitaratutako ebazpenaren bidez jakinaraziko zaie interesdunei haien eskabidea onetsi edo ezetsi den. Parte-hartzaileak ondoko irizpide hauen arabera aukeratuko dira:

1. Mintzagai dugun programan parte hartzeko plaza libreak egotea.

2. Hautagaiak aurkeztutako Zuzendaritza Proiektuari Hautapen Batzordeak emandako balioespena.

*Bigarrena.*- Hasierako Prestakuntza Programako parte-hartzaileak kalifikatzea

2.1.- Batzorde bat osatuko da Hasierako Prestakuntzako Programako parte-hartzaileak kalifikatzeko. Batzorde hori ondoko hauek osatuko dute:

- Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria edo haren ordezkoa, batzordeburu jardungo duena.

- Hezkuntzako ikuskatzaile bat Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak izendatua; batzordekide jardungo duena.

- Berritzeduneko zuzendari bat Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak izendatua; batzordekide jardungo duena.

- Irakasleen Hobekuntzarako Zerbitzuko teknikari bat; idazkari jardungo duena.

2.2.- Kalifikazio Batzordea bost eguneko epean eratu beharko da, ebazpen hau argitara eman eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Kalifikazio Batzordea osatzeko, kide guztiek egon beharko dute; Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak baloratu beharko dituen



zirkunstantzia berezirik gertatu ezean. Batzordea osatzeko ekitaldiaren akta egin eta Hezkuntza Berriztatzeke zuzendaritzari bidaliko zaio.

2.3.- Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-tauletan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren [www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net) webgunean argitaratuko da Kalifikazio Batzordearen osaera.

2.4.- Kalifikazio Batzordeko kideei Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. eta 29. artikuluetan abstentzioari eta ezespeneri buruz ezarritakoa aplikatuko zaie.

2.5.- Prestakuntza Programaren amaieran, ikastaroa eman dutenek txosten bat egin beharko dute eta Kalifikazio Batzordeari bidali. Txosten horretan, I. eranskinean ageri diren ikastaroko edukietan parte-hartzaileek egin duten lana balioetsiko dute ikastaroa eman dutenek.

Parte-hartzaileek, beren aldetik, Prestakuntza Programari buruzko txostena egin eta Kalifikazio Batzordeari bidali beharko diote.

2.6.- Kalifikazio Batzordeak izangaiak ebaluatuko ditu, faktore hauen arabera:

a) Ikastaroa eman duten tutoreek egindako txostenak, prestakuntza-ikastaroan parte hartu duen pertsona bakoitzak egindako lanari buruzkoak.

b) Parte-hartzaile bakoitzak ikastaroaren amaieran aurkeztu behar duen txostena.

2.6.- Parte-hartzaileen kalifikazioa "gai" edo "ez gai" izango da. Batzordeak zehaztuko du zer parte-hartzailek gaintitu duten Hasierako Prestakuntza Programa eta zeintzuk ez, hartutako erabakia dagokion aktan jasoko duelarik. Parte-hartzailearen batek ez badu ikastaroa gaintitzen, haren kalifikazioaren arrazoiak azaldu beharko dira.

Batzordeak ezin izango dio, inola ere ez, parte-hartzaile bati "ez gai" kalifikazioa jarri hari aurretiaz entzun gabe.

Ikastaroa gaintitzeko, parte-hartzaileak ezinbestean joan beharko du prestakuntza-saioretara. Parte-hartzailea programatutako saioren orduen % 90era ez bada joan, "ez gai" kalifikazioa izango du. Edonola ere, parte-hartzaileak hutsegite horien berariazko justifikazioak aurkez ditzake, Batzordeak balioets ditzan. "Ez



gai" izango da, baita ere, ikastaroa eman duten tutoreen aldeko balioespena lortu ez eta aurkeztutako txostenean nahikoa kalifikazioa lortu duen parte-hartzailea.

2.7.- "Ez gai" kalifikazioa eman zaien parte-hartzaileek, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak aldezturik jakinarazi ondoren, bost eguneko epean aurkeztu ahal izango dute kalifikazio horren kontrako erreklamazioa -aditzera eman eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita-, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 79. artikuluan xedatutakoaren arabera. Epe hori igaro ondoren, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak ebazpena emango du, eta dagokion Kalifikazio Batzordeari nahiz interesatuari bidaliko zaie.

2.8.- Kalifikazio Batzordeak "gai" edo "ez gai" kalifikazioen behin betiko akta idatzi ahal izateko, batzordeburuak eta gainerako batzordekideen erdiak egon beharko dute gutxienez. Edonola ere, ezinbestekak bultzaturik edo ustekabeko arrazoiengatik Batzordea eratu ondoren batzordekideetako batzuk edo batzordeburua ezin badira agertu, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariari eman beharko zaio horren berri, eta erabaki bat ala beste hartu beharko du.

Ebaluazio Batzordeak ekainaren 29a baino lehen bidaliko die akta lurralde-ordezkariei.

#### *Hirugarrena.- Izendapenak*

3.1.- Hasierako Prestakuntza Programa gainditu dutenak zuzendari izango dira lau urtez, 2010eko uztailaren 1etik aurrera.

3.2.- Hasierako Prestakuntza Programa gainditu ez dutenek zuzendari jardungo dute bat eta hiru urte bitartean -ohiz kanpoko epea-hautagaitza aurkeztu zuten ikastetxean, prozedura orokorrari jarraiki.

#### *Laugarrena.- Argibideak*

4.1.- Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak eman beharko ditu Ebazpen hau garatzeko beharrezko gerta daitezkeen argibideak; eta, deialdiaren xedeak egoki betetzeko beharrezkoa bada, zuzenketak egin beharko ditu zenbait alderditan.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko maiatzaren 10ean.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria  
MARIA LUISA GARCÍA GURRUTXAGA



## I. ERANSKINA

## HASIERAKO PRESTAKUNTZA PROGRAMAREN EDUKIAK

- Zuzendariaren eginkizunak: Ikastetxe bateko zuzendaritza-proiektua egitea.
- Ikastetxearen antolaketa eta kudeaketa: Proiektuak eta programak.
- Ikastetxeetako antolakuntza-egiturak: Ikastetxeetan gauzatzen diren prozesuak kudeatzeko sistemak.
- Antolakuntza eta dinamizazio pedagogikoa: Ikastetxeetan, laguntza-lanetan, sare-lanean, eta erabakiak hartzeko parte-hartze prozesuetan taldeak osatzea
- Ikasleen aniztasuna artatzea.
- Bizikidetzatza ikastetxean, eta gatazkak ebatzea.

## EBALUAZIOA EGITEKO IRIZPIDEAK

- 1.- Parte-hartzaileak Prestakuntza Programan egindako lanak balioespen positiboa izatea.
- 2.- Hasierako Prestakuntza Programari eta programak Zuzendaritza Proiektuaren gain izan duen eraginari buruz hautagai bakoitzak aurkeztu duen txostenaren balioespena.